

## M8 2024 | LESAKA

- 1901. Lesakako emakume batek kexa bat bidali zuen Nafarroako bi egunkaritarara: hartan idatzi zuenez, Nafarroako Parlamentuan ez zegoen euskaraz mintzatzen zen diputaturik. Izena ezezaguna.
- 1610. Inkisizioak Lesakako hamasei lagun bidali zituen espetxera. Tartean, Maria Endarakoa. Errua? Emakume izatea.
- 2019. Leire Pastor, Maddi Taberna eta Alaitz Etxabide lehen aldiz atera ziren ezpatadantzari Lesakako sanferminetan.
- 1933. Cornelia Lekuonak herentzian utzi zituen bere ondasun guztiak, Lesakako herriarentzat. Euskarazko hezkuntza proiektuetarako erabiltzen dira gaur egun.
- 1950eko hamarkada: hainbat eta hainbat emakume lesakar neskato lanetara joan ziren Ipar Euskal Herrira eta Frantziara, beren familien sostengu ekonomiko gisara.
- 2010eko hamarkada: hainbat eta hainbat emakume hegoamerikar Lesakara etortzen dira zaintza lanetara, euren familien sostengu ekonomiko gisara.
- 1993. Izaskun Portu, Edurne Rekondo eta Mertxe Rekondo lehen aldiz atera ziren zakozarren kalejiran.
- Francisca Sarobe, Juliana Telletxea, Antonia Telletxea eta Francisca Mikeo. 1936ko irailean atxilotu zituzten, Lesakan, Francoren aurkakoak izateagatik.
- Maria de los Angeles Gamariaga Panizo. 36ko gerran fusilatua.
- Soledad Iparragirre Iturriaga eta Josefa Altzugarai. 36ko gerran erbesteratuak.
- 1995. Estitxu Arozenak Nafarroako bertsolari txapela eskuratu zuen.
- 1960eko hamarkadak. Emakumeak soldatapeko lanean hasi ziren Lesakako fabrian. Horietako batzuek uko egin zioten ezkondukoan lana uzteko jasotzen zen doteari, eta fabrian lanean segitu zuten.
- 2024. Lehen greba feminista orokorra antolatu zuten hainbat emakumek, zaintza sistema publiko eta komunitarioaren alde.

Zerrenda honetako izen eta gertakari batzuk ezagunak eginen zitzaizkizuen; lehen aldiz aditu izanen dituzue bertzeak, bazirenik ere irudikatu gabe, beharbada. Eta seguru badirela zerrenda horretatik kanpo gelditu diren bertze aunitz ere. Emakumeen lana eta borrokak isilaraziak izan baitira urteetan zehar, eta baitira gaur egun oraindik ere.

Detalleak dira batzuk, datak, borroka ttikiak batzuen begietara, beharbada. Baina horien guzien ondorioz eta horiei esker ailegatu gara gaur gauden lekura, 2024ko Martxoaren 8ra, gaur ospatzen eta aldarrikatzen ari garen Emakumeon Nazioarteko Egunera.

Aitortza egin nahi diegu horiei guziei: izan zirela dakigunei, eta ez dakigunei. Egin zutenei, eta egin ezin izan zutenei. Egin zenutelako garelako gaur garena, eta garenagatik eginen baitugu biharkoa. Eskerrak eman nahi dizkiegu eskala ttiki edo handian emakumeen eskubideen alde egin duten emakume guziei; eta eskerrak eman bakarrik ez: eredutzat hartu nahi ditugu, elkartzuz, elkarrekin konspiratuz, inposatutako arauak hautsiz eta sareak eraikiz lortuko baitugu amesten dugun zapalkuntzarik gabeko gizartea.

**Egin zenutelako gara... eginen dugu, eta izanen gara!**

**GORA BORROKA FEMINISTA!**